



DANI BLANCO

Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA ♦

Pussy Riot askatu!

OTSAILAREN 21EAN aurpegia estalita zuten bost neska Eliza Ortodoxo batean sartu ziren Andre Mariari punk doinuz Putin boteretik bidaltzeko eskatzeko. Hori dela eta, ustezko hiru taldekide atxilotu eta bi urteko kartzela zigorra ezarri diete Errusian. Hori da azken hilabeteetan hain famatu egin diren Pussy Rioten kasua. Tamalez, emakume errusiar hauek azken egikari honek egin ditu hain famatu eta haien inguruko hainbat elkarrizketa, erreportaje eta notizia irakurri eta ikusi ahal izan ditugu. Ez hori bakarrik, sare sozialak Pussy Rioten askatasuna eskatzen duten hainbat ekimen, argazki eta aldarriz ere bete dira. Bueno, eta Madonna eta Red Hot Chili Peppers eta Kasparov eta Amnistia Internazionala... ere alde izan dituzte.

Nik taldea lehenago ere ezagutzen nuen, beste hainbat ekintza egin baitutuzte azken honez gain. Ezagutzen nituen hasieratik oso argi utzi dutelako haien talde izaera feminista, ezagutzen nituen haien diskurtso antipatriarkala Errusian bizi duten egoera sozio-politikoari lotu eta erresistentzia mezu oso interesgarria helarazten zutelako, ezagutzen nituen feministok historikoki egin dugun bezala, mezu hori zabalteko oso modu sortzailea erabili izan dutelako.

Eta deitu iezadazue mesfidati, halaxe izango bainaiz, baina nik ezagutzen nituen Pussy Riot horiek,

Deitu iezadazue mesfidati, halaxe izango bainaiz, baina nik ezagutzen nituen Pussy Riot horiek, hain feminista erradikal eta punki izanda, izugarri harritu nau jaso duten eta jasotzen ari diren babesak

hain feminista erradikal eta punki izanda, izugarri harritu nau jaso duten eta jasotzen ari diren babesak. Esan nahi dut, arraroa dela egun, edozein feministek horrelako babes anitz eta aho betekoak jasotzea. Noski, nire harridurak badu azalpen bat. Esan nahi dut, segituan konturatu nintzela, oso notizia gutxitan azaltzen zela haien feminista identitatea. Segituan aldatu zutela “feminista” hitza “talde femeninoa” gatik, edo Riot Grrrl inspirazioko talde punk feminista, Putinen aurkako punk talde sinple batengatik.

Eta orduan ikusten ditut halako babes argumentu neutralak, adierazpen askatasuna dela, laikotasun eskubidea dela, eliza eta boterearen arteko harremana kritikatzeko, Putinen gobernuaren mendekua salatzea... Eta ez nago prest, zeren Pussy Riot zerbait bada, talde feminista bat da, eta are gehiago, Pussy Riot osatzen duten kideak emakumezkoak dira, eta ez dugu ahaztu behar emakumeok espazio publikoa hartzen dugunean eta propioki gure feminitatearenak ez diren jarrerak hartzen ditugunean zigorra bikoiztu egiten dela.

Beraz, Pussy Rioten askatasuna eskatzen dugun horietan noren eta zeren askatasuna eskatzen ari garen argi izan dezagun, besterik ez. ■



DANI BLANCO

Itxaro Borda



IDAZLEA

Dezibel

BOST URTEZ belarriak urratzen zizkigun gobernu umparraren zarata apaldu da maiatzetik hona. Lehendakari aldaketari esker. Hargatik presidente berriak aldarrikatu normaltasunak ez ditu arazoak oro konpontzen, baina rom delakoak kanporatzen dira manu militar gehiegizko laidorik gabe. Ez da erraza rom izatea eta gainera irainak ahoak eman ahala jasatea. Hura bederen bukatu da.

Baionako bestak halaber isilkiago iragan dira, hemen ere dezibel kopurua murratu dela. Festaire gutxiago ibili da, mozkor eta oldarroi, ghettoke karraketan. Goiz naba-

rretako goitikin, izerdi, esperma eta pixa urrinak ordea sudurrak ziztatzen zizkigun lanerako tenorean. Berezilariet hiria tinkatu zuen lasaitasun bitxia azpimarratu zuten, izuaren mugetan. Hori bederen bukatu da.

Udako ekonomia aztertzen dabiltzanek azkenik, lumatzekoak diren turistek zenbaki eta erostahalarekiko iunfen dezibel neurriak behera egin duela salatzen dute. Jendarte pobretzen doala onartu nahi ez eta aro txarren bizkar jartzen dute kontsumoaren etendura. Hau bederen bukatu da. ■

